

Onartzea urteko auditoretzen plana 2016eko ekitaldirako

782/2015 Foru Agindua, abenduaren 28koa.

Abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, 120. artikuluan, “Kontuhartze kontrola. Definizioa eta modalitatea” izenekoan, zeina 1995eko abenduaren 20an aldatu baitzen, ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrola ezartzen du kontuhartze kontrola osatzen duten modalitateen artean.

Gerora, arau gorputz berean, 121 eta 121 bis artikuluetan, zehaztu egiten da ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrola gauzatzearen helburua eta egiteko era. Auditoretza tekniken bidez egin behar da, eta hauetako edozeinetan gauza daiteke: foru sektore publikoa osatzen duten erakundeak, edo entitateak, enpresa publiko edo pribatuak eta partikularrak, edozein dirulaguntza edo laguntza jaso badute Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren edo Europako Erkidegoaren funtsen kontura. Kontrol horren helburua izan behar du, foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen kasuan, argibideak ematea hauen gainean: finantza informazioa egoki aurkeztea, aplikatzekoak diren arauak eta zuzentarauak betetzea, eta efizientzia eta eraginkortasun maila baliabideen kudeaketan eta aurreikusitako xedeen lorpenean; gainerako kasuetan, argibideak ematea laguntzen erabilera zuzenaren eta zertarakoaren gainean.

Testuinguru horretan sortu da 2016eko ekitaldirako auditoretza plana. Azken finean, hau baino ez da izango: aurten egiteko aurreikusi diren auditoretzen zerrenda xehatua, eta, jakina, haien zati handi bat errepikakorra izango da, erakunde autonomoen eta foru enpresa publikoen arabera, zeinak, Arabako Foru Aldundiaren mendekoak izanik ere, erakunde organiko independenteak baitira.

Printzipioz, plan horren oinarrian ez dago inolako arrisku kalkulurik; aitzitik, araudia betez, ohiko egiteko bat du helburu Kontuhartzailletza eta Kontrol Zerbitzuaren fiskalizazio eginkizunaren barruan.

Hauek dira 2016ean egitekoak diren auditoretzen egitura eta hautaketa irizpideak:

1. FORU ERAKUNDE AUTONOMOAK, UHUN-EN GASTEIZKO IKASTEGI ELKARTUA, ALVIDE FUNDAZIOA ETA AIARAKO SISEU PARTZUERGOA.
2. FORU ENPRESA PUBLIKOAK, xedapen zatian aipatuak.
3. PROPOSATU DIREN KANPOKO ENTITATEAK.

2015an Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren kontura onuradun izan diren entitateen artetik hamaika hautatu dira, Kontuhartzailletza eta Kontrol Zerbitzuaren proposamenean azaltzen diren irizpideak oinarri hartuta.

Ekonomia kontrola xedearen orokortasunaren printzipioaren mende gauzatu behar da, zeinaren arabera foru sektore publikoak egindako jarduera oro sar bailiteke kontrol horretan, eta egin behar baita kontratatzekoa den subjektuarentzat, izaeraren arabera, ziklo tenporal eta/edo ekonomikoki garrantzitsua den bat amaitu osteko une batean.

Hori betetzeko, xedapen zatian aipatutako entitateak/programak auditatuko dira.

Aginduzko txostenak aztertuta eta dagozkidan ahalmenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea urteko auditoretzen plana 2016eko ekitaldirako, zeina Kontuhartzailletza eta Kontrol Zerbitzuak egin baitu.

Bigarrena. Ondoren zerrendatzen diren entitateak auditatuko dira, eta hautatu dira Kontuhartzailletza eta Kontrol Zerbitzuaren proposamenean azaltzen diren irizpideak oinarri hartuta.

A. FORU ERAKUNDE AUTONOMOAK, UHUN-EN GASTEIZKO IKASTEGI ELKARTUA, ALVIDE FUNDAZIOA ETA AIARAKO SISEU PARTZUERGOA.

- 1.- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.
- 2.- Gazteriaren Foru Erakundea.
- 3.- UNEDen Gasteizko ikastegi elkartua.
- 4.- Alava Vive Deporte Fundazioa (ALVIDE).
- 5.- Aiarako SISEU Partzuergoa.

B. FORU ENPRESA PUBLIKOAK.

- 1.- Arabako Kalkulugunea SA.
- 2.- Arabako Lanak, SAU.
- 3.- Fernando Buesa Arena SAU (likidazioan).
- 4.- Araba Garapen Agentzia SAU.
- 5.- Arabarri - Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate Anonimoa, SA.
- 6.- Naturgolf SA.
- 7.- Aldalur Araba SL.
- 8.- Indesa 2010 SL.

(Fernando Buesa Arena SAUren (likidazioan) eta Arabarri - Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate Anonimoa, SAren kasuan, biak ere desegite-likidazio prozesuan egonik, auditoretzaren xede izango dira urteko kontuak eta/edo azken balantzea eta likidazio txostena, likidazio amaitzen den dataren arabera).

C. KANPOKO ENTITATEAK.

- 1.- Praxis Pharmaceutical, S.A. (A – 01.405.042)
- 2.- Daisaluz, S.A.. (A – 01.040.310).
- 3.- RPK S.COOP. (F – 01.009.554).
- 4.- ART. Vitoria Centro Ginecológico de Reproducción, S.L.. (B – 01.495.803).
- 5.- BH Bikes Europe, S.L. (B – 01.003.599).
- 6.- Cafinsa Industrias del Café del Norte, S.A. (A – 01.005.313).
- 7.- Consorcio Alimentario, S.A. (A – 01.78.914).
- 8.- Turismoa eta Ekonomia Sustatzeko Ardoaren Ibilbidea Elkartea. (G-01.387.554).
- 9.- Arabako Atletismo federazioa. (G – 01.047.257).
- 10.- Arabako Rugby federazioa. (G-01.047.570).
- 11.- Arabako “Isabel Orbe” Síndrome de Down Elkartea. (G-01.171.693).
- 12.- ASPACE. (G -01.100.130)